



Martxoaren 7an, Leartibai Garapen Agentziaren Administrazio Kontseilua batzartu zen, Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein eta Ondarroako alkate eta herri bakoitzeko zinegotzi bana bilduz. 2011. urteko diru-kontuak onartu eta 2012ko kudeaketa planaren lehen bi hilabetetako deskargua egitea zuen helburu bilerak. Bi gai azpimarratu zituzten batez ere:

- Alde batetik, eskualdeko turismo garapenerako planteamendu berria. Garapen Agentziako teknikariak banakako bilerak egiten ari dira egunotan, udal bakoitzak bere lehentasunak eta asmoak argitzeko, bigarren fase batean eskualde mailako planteamendua zehazte aldera.
- Eta bestetik, Lanbiderekin elkarlanean, eskualde bakoitzak epe motzean egin beharko duen Enplegu Plana. Oso interesgarrizat jo zen, hurrengo urteetan enpleguaren sorreran eragina izango duten proiektuen identifikazioa egitea, eskualdeko garapen ekonomikorako eragile, enpresa eta udalak bat eginda.